

Web semantikoa eta sare sozialak hizkuntz ikas-irakaskuntzan

Agurne Aizpitarte, Natxo Guillén

Artikulu honetan, jarraipena eman nahi diogu aspaldian hasitako bideari. Bertan Internetek hizkuntz irakaskuntzaren alorrari eta, gurean ere, alfabetatze-euskalduntzeari ere egin dion ekarpena jorratuko dugu. Lehendabizi, Blogak (Hizpide 59, 2005. 61-73 orr.) izan genituen mintzagai; geroago WebQuest eta Altxorraren bila (Hizpide 60, 2005. 56-68 orr.); azkenik, Wikiak (Hizpide 62, 2006. 31-42 orr.) etorri ziren, hurrenez hurren.

Sorta hori bukatzeko Web semantiko eta sare sozialak aztertu nahi ditugu oraingoan, hizkuntzen ikas-prozesuetan egunez egun indarra hartzen ari baitira. Horren segidan, beste atal batean, podcasting-ak eta bideocasting-ak aztertuko ditugu. Une honetan duten garrantzia begien bistakoa da. Izan ere, aztiarena egin gabe esan dezakegu bi tresna hauek, luze jo gabe, ezinbesteko bilakatuko direla gure eguneroko jardueretan.

Definizioa

Interneten, azken urte hauetan egin diren aurrerapausoak direla medio, erabiltzaileok inoizko protagonismoa hartu dugu. Paradigma-aldaketa bat gertatu da sarean, non erabiltzaileok, alde pasiboa izatetik, hau da, erabiltzaile jasotzaile hutsak izatetik, alde aktiboa edo erabiltzaile sortzaile izatera pasatu garen.

Orain arteko paradigmaren ezaugarri nagusienetakoa izan da norabide bakarrekoa izatea. Web orriak estatikoak ziren eta erabiltzaileak irakurle gisa aritzen ziren.

Paradigmaren aldaketak ekarri digu erabiltzaileen arteko elkarreragina eta horrekin batera sare sozialak garatzeko aukera izatea ere bai. Paradigma berri horretan erabiltzaileok geure iritzia eman dezakegu, edukiak konpartitu eta elkarrekin lanean aritu, ezagutza eraikitzeko.

Sarean nabigatzen badugu berehala ikusiko dugu ez dela ahobateko adostasunik lortu gertaera horri izena ipintzerakoan. Guztien artean gailendu dena Web 2.0 izan da, baina Interneteko foroetan jadanik Web 3.0ri buruz hitz egiten ari dira. Gu ez gara jausiko teknologia berrien abiaduraren zurrumbiloan. Gure iritziz tresna horiek oso baliagarriak dira eta, unean

uneko lilurak erakarrita, ezin gara gainetik pasatu modako kontu bat balira bezala.

Guk hemendik aurrera Sare Sozialen aldeko apustua egingo dugu, zeren eta gure iritziz, horixe baita Web 2.0ren barruan koka ditzakegun erreminta guztien ekarpen nagusia eta, era berean, daukaten balio erantsia.

Ingurune bat sortzea erabiltzaileak elkarreraginean egoteko eta ezagutza eraikitzeko, horixe dugu buruan. Eta ezagutza hau modu kolaboratiboan sortzeko ezin aproposago ikusten ditugu sare sozialak eta web 2.0ko aplikazio batzuk. Bestalde, gure jomugan beti egongo dira hizkuntzen ikas-prozesuak eta, batez ere, euskara ikasten ari diren erabiltzaileak.

Web 2.0ren aplikazioen sailkapen bat

- Iritziak eman, sortu, argitara eman eta zabaltzeko aplikazioak: Blogak, Wikiak, podcast, bideocast, foroak, egunkari eta telebista digitalak...
- Informazioa bilatzeko eta eskuratzeko aplikazioak: Bloglines, Del.icio.us, GoogleReader eta bilatzaile orokorrak: Google, Yahoo, Elebila,...
- Multimedia fitxategiak kudeatzeko aplikazioak: EuskalTube, YouTube, Google Video, Flickr, MySpace... Honelako aplikazioak asko erabiltzen dira hezkuntzako (Eduvlog, Zibereskola) blog, bideoblog, wiki eta podcastetan.
- Sare sozialak: Moodle (ikaskuntza- eta irakaskuntza-jarduerak antolatzen ingurunea), Second Life (elkarreragin soziala bultzatzen duen mundu birtuala), Twitter, Wikipedia (era kolaboratiboan sortutako entziklopedia birtuala), DeJaboo (literatura, musika eta zineari buruzko web orria. Iritziak elkarrekin trukatzeko, produkzio berriak ezagutzera emateko eta antzeko interesak dituen jendearen elkargune izateko sortu da).
- Web 2.0ren beste baliabide batzuk: liburu birtualak, berriak, arbel digital kolaboratiboak *on-line*zkoak, blog eta wikiak ornitzeko elementuak (egutegiak, erlojuak, aurkezpenak –*Slideshare*–, eguraldia, etiketak, ikonoak, etab...), geolokalizazioa (Wikimapia eta GoogleMaps) Mashup edo aplikazioak nahasian (lehen aipaturiko aplikazio batzuk web orri bakarrean nahasian eskaintzen direnean, “mashup”-a dela esaten dugu), Panoramio (Erabiltzaile bakoitzak bere munduko mapa osatzen ahal du. Bertan nork bere bidaiak eta argazkiak jarri eta lagunei erakutsi eta iruzkinak elkarrekin trukatzeko ahal dira), mySchoolog (ikasleen eskola jarduna antolatzen sareko aplikazioa).

Jakina! Guk egin dugun sailkapena era askotan egin daiteke, modu orokorrean eginda dago. Kontuan izan behar da, batetik, ikuspuntu ezberdinetatik planteatu daitekeela eta, bestetik, aplikazioen zerrenda amaiezina dela. Hau argitzeko adibide bat, gure esparrura ekarrita, aplikazioak honelaxe sailkatuko genituzke: hizkuntzen ikaskuntzaren arloan aritzen diren blogak, wikiak, web orriak, podcastak, etab. Blog baten baitara, aplikazio asko bil daitezke: audioak, bideoak, aurkezpenak, etab.


Web 2.0ri buruz hitz egiten dugunean kontuan hartu beharreko beste puntu bi dira: kantitatea eta kalitatea. Interneteko demokratizazioarekin batera sare sozialetan parte hartzen duen pertsonen kopuruak gora egin du.

Jende askok erabiltzen du sarea iritziak eta lanak zabaltzeko era guztietan, idatziz, ahoz eta irudien bidez. Beraz, garrantzizkoa da iragazkia pasatzea, amaraunean murgiltzen diren guztiak ez baitira adituak, eta, ongi aukeratzea. Aukeraketa horiek bideratzeko Bloglines bezalako zerbitzariak oso lagungarriak dira gure gogokoak hobesteko lana errazte aldera.

Baina, zer egiten du Bloglines bezalako zerbitzari batek? Bertan izena ematen baldin baduzu eta zure blog, podcast edo webgune gogokoenen helbidea, hauetan zerbait berria agertzen den bakoitzean zure ordenadorean jasoko duzu mezu bat eta orduan Bloglines-en sartu eta bertan ikusiko duzu sartu duzun gogokoen zerrendatik non dauden gauza berriak eta non ez. Horrela, bakarrik bisitatuko dituzu berriak idatzi dituzten guneak eta ez zara ibiliko beti gogokoenak bisitatzen jakin gabe zure azken bisitatik zerbait berririk dagoen ala ez. Horrela ez da denborarik alferrik galtzen.

Informazioa atalkatzeko modu horri sindikazioa deitzen zaio eta iraultza handi bat ekarri du interneten. Modu horretan jardunda informazioa erabiltzailearen ordenadorera dator eta ez du erabiltzaileak sarean batera eta bestera alferrik ibili behar.

.1:



Web 2.0ren aplikazioen beste abantaila bat da software instalaziorik ez dela behar Interneteko aplikazioak direlako, beraz, sarean egin dezakegu lan eta saretik hartutako erremintak erabiliko ditugu.

Sare sozialak

Sare sozialak antzeko interesak dituzten pertsonen taldeek osatzen dituzte. Pertsona talde horiek Interneten bidez komunikatzen dira eta horien helburuak hauexek ditugu: alde batetik, elkarbanatzea edo konpartitzea, hau da, ematea eta jasotzea; bestetik, interesgune horrek bultzatutako proiektuetan modu kolaboratiboan lan egitea.

Sare sozialen ezaugarriak honako hauexek dira:

- Parte hartzaileen beharrek sortutako helburu komunak dituzte.
- Sinesmenak, baloreak eta arauak konpartitu egiten dira. Parte hartzaileen arteko konplizidatea sortzen da eta elkarri laguntzen diote. Parte hartzaileen artean elkarerreragina sortzen da.
- Rolak esleitzen dira: iritzi-emaileak, moderatzaileak, adituak, foroak elikatzen dituztenak, mantenuaz arduratzen direnak,...
- Normalean software librea erabiltzen da, doakoa eta sare sozialak sortzeko aproposa baita.

Lan kolaboratiboa

Ikas-prozesuko helburuak lortzeko ikaskideekin egiten den lana ezinbestekoa da. Lan kolaboratiboa egiten denean, ikaskideengandik ere ikasten dute nahiz eta ikasle bakoitzak bere ezagupenak bere eskema, eskarmentu eta norberaren ingurunetik eraiki.

Ildo horretatik, *Ikaskuntza komunitateek*, nork bere eta taldearen ikaskuntza helburuak lortzen laguntzen dute ikasleen arteko elkarerreragina bultzatuz. Horrelako komunitateetan, lehen aipatutako ezaugarriei honako hauexek gaineratu behar zaizkie:

- Ikasleak jakitun dira beraien ikaskuntzan aurrera egingo badute elkarren beharra dutela eta prest daude taldean bakoitzak duen rola betetzeko.
- Ataza burutzeko ikasle bakoitzak ideiak proposatu behar ditu, besteenak entzun, hausnarketa egin, argudiatu...
- Lanerako leku fisiko edota birtuala dute. Komunikazio formala eta informala izateko kanalak daude eta irakasleak laguntzaile, orientatzaile eta motibatzaile lana du.
- Komunitate hauetan organizazio zorrotza egoten da. Lidergoa, rola, atazak, arauak...
- Arrakasta lortzeko, ezinbestekoak dira: jarrera ona, konfiantza, errespetua, parte hartzea...

Komunitate birtualak (sare sozialak on line)

Interneten dauden interes bereko lan taldeak dira. Partaideek informazioa eman eta jasotzen dute eta elkarrekin egiten dute lana proiektuetan. Ikaskuntza komunitateen ezaugarri guztiak aurkituko ditugu ikaskuntza komunitate birtualetan. Egun, interneten komunikatzeko dauden gune eta baliabideei esker, lan kolaboratiboa fisikoki gertu ez daudenen artean ere gauza daiteke.

Sare sozialen aplikazioak eta eredu didaktikoa

Ikasle sareak: Ikasgelan aurrez aurreko ikas-irakaskuntzan ari diren ikasle eta irakasleak ikaskuntza birtualeko komunitate batera biltzen badira, ikasteko aukerak handiagoak izango dira. Ikaskuntza birtualeko ikasleentzat ere aberasgarriagoa izango da sareetan antolatuta egotea eta ez modu isolatuan jardutea. Euskaltegia ikasten ari den komunitate bihurtu behar dugu.

Irakasle sareak: Irakasleen komunitate birtualek asko lagundu diezaiekete irakasleei beren lanean. Hurrengo ekintzak eta beste asko egin ahal direlako: materiala trukatu, arazoei irtenbidea bilatu, formazioan lagundu, nor beraren eskarmentuaren berri eman eta jaso...

Web 2.0k Ikas- -irakaskuntzan duen eragina

Gaur egun, erabiltzaile guztiek edukiak sortu eta editatzeko aukera izateak internet demokratizatu du. Ikaslearen autonomia garatu eta talde-lanak egiteko bide errazagoak eskaintzen ditu.

Talde-lana eginez ikasleek ezagupenak eraikitzen dituzte. Ikasleek beste batzuekin lan egiten dutenean eta beraien lana sarean ikusiko dela dakite-nean, ondo egiteko interesa eta motibazioa pizten zaie.

Web 2.0n garatu diren editatzeko aplikazioei esker, irakasleek eta baita ikasleek ere, material didaktikoak sortzen ahal dituzte. Sortu, eta sortzeaz gain beste batzuekin partitu, iruzkinak eskatu, aldaketak onartu, etab. Gainera material guztia *on line* artxibatzen ahal da, biltegi birtual bat sortuz.

Ikasketa-sarea ikaslez eta irakaslez osaturiko gune birtuala da. Ikasketa-sarearen bidez, ikasle eta irakasleen arteko elkarreragina areagotzen da teknologiak eskaintzen dituen tresnak erabiliz, harremanak ez baitira eskola-orduetara bakarrik mugatzen. Horrek berarekin dakartzan onurak ere agerikoak dira.

Teknologia horrek guztiak ikasle eta irakaslearen rola aldatzen laguntzen du. Irakaslea orojakile, zuzentzaile eta informazioa ematen zuen bakarra izatek orain bitartekari eta ikas-prozesuan gidari bihurtzen ari da. Irakasleak baliabideak eskainiz, gidatuz eta bitartekari-lana eginez laguntzen dio ikasleari.

Bukatzeko, aipa dezagun ikasketa-sarea zentro desberdinen artean osa daitekeela eta ez zentro edo euskaltegi bateko partaideen artean bakarrik. Horrela zentro desberdinetako irakasleek lana elkarrekin egin ahal izango dute, materiala eta iritziak batzuek besteekin trukatu, etab.

Ikaskuntzan inplementatzeko behar diren baldintzak

Zer behar da web 2.0k eskaintzen dituen baliabideak modu errazean erabiltzeko?

Euskaltegian

Gela guztiek interneterako sarbidea izatea komeni da baita ikasle-entzako ordenadore batzuk gelan bertan edukitzea ere, badakigu jakin egoera hori ez dela gaur egungo errealitatea, baina horretara jo beharko genuke. Ordenadore guztiak gela batean jartzen baldin badira, eta denak bertara joan behar izanez gero ordenadorea erabili nahi den bakoitzean, azkenean, joan-etorriak joan-etorri, ez da ordenadorea erabiliko ez baita eroso izango...

Etxean

Gero eta jende gehiagok dauka ordenadorea eta interneteko konexioa etxean eta horrek laguntzen die ikasleei ikaskideekin eta irakaslearekin harremanak ez eteten, euskaltegira joan ezin direnean ere ikasgelan egiten ari direnaren hariari jarraitzen, informazioa eskuratzen...

Hirian edo herrian

Beren etxeetan ordenadorerik ez dutenei, KZ guneetan, gizarte etxeetan, liburategietan eta beste leku publiko batzuetan dauden ordenadoreak erabiltzen ohitzea komeni zaie.

Irakasleriak

Ikasleek erabiliko dituzten materialak prestatzeko, ikasleek egingo dituzten lan birtualen jarraipena egiteko, ordenadorea eta interneterako sarbi-dea beharko ditu eskura.

Ikasleek behar dituzten gaitasunak

Ikasleak, interneteko aplikazioak erabiltzen badituzte, sarean dagoen informazioaz baliatzen badira, beraien ezagupenak eraikitzeko ere autonomoagoak izango dira. Baina hau guztia lortzeko gaitasun batzuk garatu behar dituzte eta ez baldin badituzte denbora pixka bat pasatu beharko da, pixkanaka-pixkanaka lortu arte.

Gaitasun digitala

Internet erabiltzaile mailan ezagutzea. Honek esan nahi du: nabigatzea, informazioa bilatzen, aukeratzen jakitea, beste batzuekin ziberespazioan komunikatzen jakitea, dauden arriskuen berri izanda, eta web 2.0ren aplikazioak erabiltzen jakitea.

Gaitasun sozialak

Lan-taldean aritzeko behar diren gutxieneko trebetasunak izatea: besteenganako begirunea, hartu diren konpromisoak aurrera eramatea, etab.

Beste gaitasun batzuk

Ikasleak bere autonomia izatea, sortzailea, malgua...

Irakasleriaren aldeko jarrera eta formazioa

Irakasleak seguru sentitzeko teknologia erabiltzen dutenean ezinbestekoak dira hurrengo gaitasunak izatea:

Gaitasun digitala

Ikasleentzako aipatutako berberak.

Gaitasun didaktikoa

Web 2.0k eskaintzen dituen aplikazioak erabiltzeko irizpide metodologiko garbiak izan behar ditugu. Teknologia bitartekoa da. Eta haren lilurak ez gaitu itsutu behar. Azken batean, benetako garrantzia gure eredu metodologikoak du. Ikasleei ondo azaldu behar zaie helburuak zein eta nolakoak diren baita proposatzen ari garen lanaren zertarakoa ere.

Aldeko jarrera

Hasieran eta beharrezko diren gaitasun horien jabe ez baldin bagara, formazioan erabili beharreko denboraren aurrean aldeko jarrera baldin badugu, errazago lortu dira emaitza onak.

Hona hemen sare sozialen aplikazio batzuk

Moodle irakaskuntza kudeatzeko sistema da. Moodle Martin Dougiamas australiarrek sortu zuen 2001ean. Harrez geroztik ikaragarriko arrakasta eta zabalkundea izan du mundu osoko hezkuntza-erakundeen artean. 2006ko abenduan Moodleren gune ofizialak 150.000 erabiltzaile ditu, 75 hizkuntzataraz itzulita dago (euskarara ere bai), mundu osoko 160 herri-tan ari dira erabiltzen, 19.091 gunetan. Datu hauek Wikipediatik hartuta daude.<http://eu.wikipedia.org/wiki/Moodle>.

Moodle software librea da. Baina zein abantaila dakar kode irekia izateak? batetik, erakunde edo zentro erabiltzaile bakoitzak bere beharretara egokitzen ahal duela behar dituen aldaketak eginez. Bestetik, Moodle instalatzea doan dela eta ez duela inolako mantenu-gasturik. Moodle plataformaren garapenean ikasleek, irakasleek eta erabiltzaileen komunitateak laguntzen dute.

Eta zein ikas-irakaskuntza mota ahalbideratzen du Moodle plataformak?

Hemen aipatuko ditugu Moodle-ek eskaintzen dituen baliabide batzuk. Hortik irakurle bakoitzak ondorioztatuko du honen atzean dagoen filosofia eta bidebatez, aztertuko du ea bat datorren berak erabiltzen duen metodologiarekin.


Interakziorako gune batzuk: foroak, txat-gela. Hauek ordenadore aurrean sortu ahal den isolamendu sentimendua ekiditen dute eta ezagutzak elkarrekin eraikitzeko bideak zabaldu.

Lanak modu kolaboratiboan egiteko tresna batzuk: wikia, bloga, bi hauek sinpleak badira ere, eta glosategia.

Materiala irakasleek zein ikasleek igo dezakete.

Autoebaluaziorako tresnak, adibidez hausnarketa egiteko plantila. Honek nork bere autonomia garatzen laguntzen du

Moodle hemendik jeitsi daiteke <http://moodle.org/> eta bertan informazio asko dago. Baina gehiago behar baldin baduzu gai honetaz, Euskaljakintzaren webgunean ere artikulu, tutorial etabar luze eta interesgarria dago, helbide honetan: <http://www.euskaljakintza.com/web-20-baliabideak/moodle-plataforma>



ePals

Ikas komunitate birtualik handiena epals da. Lau miloi eta erdi ikasle eta irakasle baino gehiago daude eta 191 nazioko partaideak elkartzen dira bertan. Lana modu kolaboratiboan egiten dute eta plataforma honek laguntzen die horretarako beharrezko diren baliabide guztiekin. Hauxe da helbidea: <http://www.epals.com/>

Ezagutzak partekatzeko espazioak

Blogak eta Wikiak beste bi artikulutan komentatu ditugu (Blogak, Hizpide 59. alean eta Wikiak Hizpide 62. alean) Baina hona ekarriko dugu gurekin “Internet didaktizatzen: Blogosfera ikas-irakaskuntzan” eta “Wikia, elkarlanean idazteko Interneteko tresna: funtzionalitateak eta erabilera didaktikoak” ikastaroak egin zituzten irakasleen iritziz zertarako erabil daitekeen euskararen ikas-irakaskuntzan bloga eta wikiak. Baina hainbeste erabilpen aurkitu zituztenez eta hau ez denez horretan luzatzeko tokia bi edo hiru zertzelada baino ez ditugu emango.

- *Blogak zertarako?*

Trebetasunen lanketarako, euskarazko ekitaldien agenda bat egiteko (antzerkiak, musika-saioak, hitzaldiak, topaguneak...), ordu-tegi desberdinetan ari diren irakasleen arteko solasune izateko, euskaltegiko informazioa eman eta iradokizunak eskatzeko, euskaltegitik kanpo ikasten jarraitzeko aukera izateko, ikaskideekin batera eskolan egiten diren lanen erregistroa eraman eta lan horiek baloratzeko, nor bere ikas-prozesuaz hausnarketa egiteko, egunkaria edo bitakora modura erabilia, ikasleek sortutako poema, bertso eta abarrak argitaratu emateko, eskolako lanen erakuslehi izateko (irakasleak agindutako lanak: ahozko azalpenak, lan idatziak...) beren ideia eta iritzia plazaratzeko...

- *Zertarako wikiak?*

Idazmena modu kolaboratiboan lantzeko. Ikasle askoren artean jasotako apunteak biltzeko. Ez dute derrigorrez ikasgela edo euskaltegi berekoak zertan izan, euskaltegien arteko proiektuak. Demagun bi edo hiru euskaltegiren artean laugarren mailako programazioa egitea erabakitzen dutela, lan hori errazteko gunea litzateke *wikia*, edozein arrazoiengatik (gaixotasunak, lanak, beste mota bateko ikasketak,...) joaterik ez duten ikasleen kasuan ikas-prozesuari ondo jarraitzeko lagungarri izan daiteke.

Hizkuntzaren formari ere bereziki errepara dakiok. Ikasleek beren mailari dagokion gramatika sortuko lukete. Beren modura adierazita irakasleak akatsak zuzenduko lituzke...

Hizkuntzak lantzeko sistemak

Ezagutzak elkarbanatzeko edo konpartitzeko bultzada horretan teknologia berrietan gertatutako aurrerapenak ahalbidetu dute hizkuntzak lantzeko sistemen hedapena.

Bideo-deiak, bideo-hitzaldiak gero eta ohikoagoak dira gure gizartean eta horren isla euskaltegi batzuetara heldu da. Auto-ikaskuntzan dauden zenbait ikasleekin tutoretzak eta mintza praktika egiteko gero eta gehiago erabiltzen dira Skype edo Messenger bezalako aplikazioak Webcam baten laguntzaz.

Aplikazio horien itzalean *Mintzapraktika.org*, *eTamden* eta *The Mixxer* bezalako Web orriak agertu dira. Orri horien helburua da hizkuntzak landu nahi dituzten pertsonak elkarrengana biltzea. Jeneralean orri horiek doakoak izaten dira eta bestelako zerbitzuak ere eskaintzen dituzte, esaterako: aholkuak ematea, zalantzak argitzeko sistemak, etab...

Mintzapraktika.org

Euskal Herrian euskara praktikatzeko tresna ezin hobea dugu gune hau. Helbide honetan <http://www.mintzapraktika.org> topatuko dugu behar den informazioa mintzalaguna izateko.

Proiektu hau 2006. eta 2007. urtean Eusko Jaurlaritza, AEK eta Topagunearen artean gauzatu zen.

Mintzapraktika.org-en honela definitzen dute proiektua:

“Mintzalagun, Berbalagun, Mintzakide, Solaskide, Zahar-berri... herrien eta euskalkien arabera izen ezberdinak erabiltzen ditugu azken batean egitasmo berdintsuak izendatzeko: mintzamina lantzeko programak.

Mintzamen-programak euskaraz hitz egiteko ohitura duten pertsonak, euskaraz hitz egiteko ohitura ez duten pertsonekin elkartzean datza.

Idea xamurra bezain eraginkorra da, kontuan hartzen badugu guztiontzako ez dela erraza euskaraz hitz egiteko gune, une eta kideak aurkitzea.

Hori dela eta Euskal Herriko lurralde guztietan; hiri, herri eta auzoetan hainbat dira martxan dauden mintzamina lantzeko programak.


Egun 40 egitasmo daude martxan Euskal Herrian zehar. Horietan 400 mintzataldek parte hartzen dute. Guztira 1.800 lagun.

.3:



eTandem: Web honen helburua da, egileek azaltzen duten moduan, “Mundu osoko pertsonen interesa piztea hizkuntzak ikasteko eta horiei elkarrekin harremanetan jartzeko bidea erraztea”.

.4:



The Mixer: Mixer, aurrekoaren ildo beretik doa, hizkuntza ikasle eta irakasleak elkartzea dute helburu hizkuntza-kidea topatzeko. Zer da egileen hitzetan “Hizkuntza-kidea” *language partner*? Bada, ama hizkuntza edo hizkuntza nagusia zuk ikasi nahi duzun bera duen pertsona, aldi berean, zuk dakizun hizkuntza ikasi nahi duena. Web orri honen bidez pertsona biek ikasten ari diren hizkuntzak erabiliko dituzte, eta, elkarri lagunduko diote ikas-prozesua aurrera eramaten.

Laburbilduz

- Web 2.0ren espazioak denok berdintzen gaitu, ikasle zein irakasle.
- Ikaskuntza autonomoagoa eta parte hartzaileagoa da.
- Materialak sortzeko, elkarbanatzeko eta kritikatzeko aukera dago.
- Edukiak modu errazean argitara daitezke.
- Jarduera mota berriak planteatzen dira bai ikas-prozesuan txertatzeko bai ebaluazioari eragiteko.
- Trebetasun digitalak maiz elkarreraginean oinarritzen dira.
- Euskaltegien arteko komunikazioa bultzatzen laguntzen du. Irakasle zein ikasleen artekoa eta elkarlanean aritzeko guneak sortzea ahalbiderratu.

Ez dugu artikulu hau bukatuko esan gabe bidea egiten baino ez garelako hasi eta lehen aipatu dugun bezala teknologia berriak aurrera doazela egunez egun, baina, guk tentuz jokatu behar dugula aurrerapen hauek guztiak gure kontra bihur ez daitezen.

Helbide interesgarriak

Helbideak jartzerakoan oso zaila da dauden eta diren guztiak jartzea. Aukeraketa bat egin behar izan dugu eta badakigu asko eta asko utzi dugula kanpoan; beraz, hemen egon behar zuten eta ez dauden guztiei barkamena eskatu nahi diegu.

Bestalde, gure eskarmentuan oinarrituta, onak iruditu zaizkigulako egin dugu aplikazioen aukeraketa eta blogena maiztasuna, kalitatea eta erabilgarritasuna kontuan izanda.

Euskaltegiak eta irakasleak sarean

<http://www.udaleuskaltegiak.net/>

<http://www.aek.org/>

<http://zibergela.blogspot.com/2007/12/barakaldokou-udal-euskaltegia.html>

<http://www.santurtzieus.com/>

<http://www.gabrielaresti.com/>

<http://www.jmzabala.com/>

<http://www.habe.org/>

Blogak

Blog komunitatea

<http://www.asapala.org/mahatsorriak>

Irakasleen blogak:

<http://karrajua.org/>

<http://www.blogari.net/semerimendi>

“Zertzeladak”:

<http://www.blogari.net/txelis>

<http://www.blogari.net/joxeluix>

Ikasleekin lana egiteko blogak:

“Bloga bloga marinelak”: <http://www.blogari.net/bertxo>

“Camille Fauque” bloga: <http://www.blogari.net/iraia>

<http://www.blogari.net/martiuski>

<http://www.blogari.net/argiurki>

<http://www.blogari.net/eneba>

<http://www.blogari.net/antuan>

<http://www.blogari.net/jugalde>

Podcastak:

Irratia.com <http://www.irratia.com/>

Bilbo Hiria <http://www.bilbohiria.com/>

Bideoblogak:

<http://hezkontb.blogspot.com/>

<http://www.eduvlog.org/>

<http://ikasvlogak.blogspot.com/>

<http://www.itelebista.com/eu/>

Aplikazioak

Mashup-ak:

<http://dejaboo.net>

<http://www.panoramio.com>

<http://wikimapia.org>

<http://www.myspace.com/>

Foroak:

<http://foroak.com/orria.php>

<http://zirikteroak.ning.com/>

<http://www.flickr.com>

Bloglines: <http://www.bloglines.com>

Youtube: <http://youtube.com/> edo euskaraz: <http://euskaltube.com/>

Blogak sortzeko:

Blogger: <http://www.blogger.com>

Euskaraz:

Blogari: <http://www.blogari.net>

Blogak: blogak.com

Wikiak sortzeko zerbitzaria

Wetpaint: www.wetpaint.com

Slideshare: <http://www.slideshare.net> aurkezpenak egiteko tresna. Zerbitzarian gorde eta bes-teenak ere erabil daitezke.

Wikiak

Arigea: <http://arigea.wikispaces.com/>

<http://wiki.gleducar.org.ar/wiki/Portada> Hemen “Gleduwiki”-a ikusiko dugu. “Gleducar” proiektu hezitzailearen wikia.

<http://es.wikipedia.org/wiki/Ciberperiodismo> Kazetaritza digitalari buruzko wikia. Wikimedia.

<http://es.wikibooks.org/wiki/Portada>. Testu liburuak idazteko Wikimedia proiektua.

<http://www.ramoncastro.es/contenido/ecowiki/index.php/Portada> Ekonomiaren irakaskuntza bigarren hezkuntzan.

<http://aulawiki.wikispaces.com/> Wikiak hezkuntzan zertarako erabili

<http://eu.wikipedia.org/wiki/Azala>. wikipedia euskaraz.

<http://www.wikilearning.com/> Gai askoren ingur-ruan ikasteko sortutako wikiak

Hurrengo biak Felipe Zayas irakaslearenak dira:

<http://relatos.schtuff.com/>

<http://gramatica.wikispaces.com/>

Ikas-sareak

Gorka Palazio: <http://www.ehu.es/palazio/edu/wiki/>

Eduvlog: <http://www.eduvlog.org/search/label/ingl%C3%A9s%20b%C3%A1sico>

Zibereskola: <http://zibereskola.blogspot.com/>

Epals: <http://www.epals.com/>

Educastur: <http://blog.educastur.es/blog/2007/06/18/web-20-y-educacion/>

Zibereskola: <http://zibereskola.blogspot.com/>

UEU: <http://www.unibertsitatea.net/>

Hizkuntzak sarean ikasteko

<http://www.mintzapraktika.org/>

<http://www.ompersonal.com.ar/>

<http://www.kontaizu.net/informatika/index.php?mod=1&HEMEROTEK=12>

<http://www.hiru.com/about/hizkuntzak>

The Mixer: <http://www.language-exchanges.org/indexSpanish.aspx>

Etandem: <http://www.slf.ruhr-uni-bochum.de/etandem/etindex-es.html>

MySchoolog: www.myschoolog.com ikasle-entzat garatutako aplikazio bat da, hots, beren irakasgaiak, zereginak, apunte/oharrak eta artxi-boak gorde eta kudeatzeko tresna.

